

2021eko **Batzar** **Nagusia**

Gai-zerrendako 5. gaia

Kontu-hartzailetza txostena

2021eko maiatzaren 29ko Batzar nagusiari

AURKIBIDEA

Sarrera	2
Giza baliabideak eta baliabide teknikoak handitzea ekonomia- eta finantza-arloan	2
Kontabilitate analitikoa	3
2020ko itxierako informazio ekonomikoa	3
Ekitaldiko emaitzaren analisia	4
EBITDAren gainekeo marjina	5
Energia-hornikuntza	6
Finantza-emaitza	6
Zor-jaulkipenak	7
Sorkuntza-enpresa partaidetuak	8
Generation kWh	10
Bazkide ez diren bezeroak gonbidatzea	10

Sarrera

Som Energiaren indarreko Estatutuen 53. artikulua Batzar nagusiak kontu-hartzaile gisa hautatzen dituen pertsonen zereginak definitzen ditu. Artikulu horren eta legeria aplikagarrian jasotako erantzukizunen arabera, enpresaren kudeaketaren azalpen-memoriari, balantzeari, emaitzen kontuari eta arauz 2021eko Batzar nagusiak onetsi ditzan aurkeztu behar diren gainerako kontabilitate-dokumentuei buruzko gure txostena prestatu dugu.

Txosten honekin, ahalik eta ikuspegi zehatzena lortzeko, enpresaren ekonomia-, finantza-, ondare- eta kontabilitate-kudeaketa ezagutzeko egin dugun lana amaitzen da. Enpresaren ekonomia- eta finantza-arloarekin izan dugun lankidetzaren emankorra izan da. Eskatu dugun informazio guztia -bai enpresa nagusiari bai enpresa partaidetuei buruzkoa- eskuragarri egon ahala eman digute. Planteatu ditugun galderei erantzun digute, informazioa ondo ulertzeko eta osatzeko behar adina bilera egin ditugu eta gure iritzia askatasunez eta independentzia osoz adierazi ahal izan dugu.

Eman diguten informazioa aztertu dugu. Gure ezagutza eta irizpidea oinarri hartuta, esan dezakegu SOM ENERGIA, SCCLren eta kooperatiba nagusi den sozietate partaidetuen 2020. ekitaldiko egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak eta SOM ENERGIA Taldearen kontu bateratuek sozietate horien finantza- zein ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitza modu egokian eta fidelki islatzen dituztela. Urteko kontuen barne dauden Som Energiaren eta Taldearen memoriak behar hainbateko informazioa ematen dute egoera ulertzeko.

Hortaz, 2021eko ohiko Batzar nagusiari aurkeztuko zaizkion 2020. ekitaldiko urteko kontuak onestea proposatzen dugu.

Ekitaldi honetan eta aurreko ekitaldietan egindako azterketa ikusita, gure iritzia adierazi nahi dugu ekonomia-, finantza- eta ondare-kudeaketaren gaineko hainbat kontutan.

Giza baliabideak eta baliabide teknikoak handitzea ekonomia- eta finantza-arloan

Kooperatiba tamaina handiko enpresa bilakatu da: 2020an 72 milioi euroko fakturazioa izan du, eta, urte amaieran, 120.000 kontratu baino gehiago, ia 70.000 bazkide eta 15 enpresa partaidetu ditu.

Tamaina horretako sozietate batek oso zimendu sendoak behar ditu. Kontabilitate- eta finantza-sailak langile nahikoak eta enpresa kudeatzeko azpiegitura informatiko egoki bat behar ditu.

2019. ekitaldian, finantza-arduradun bat hasi zen lanean; berari esker, aurreko ekitaldietako txostenetan azpimarratu genituen gai askotan aurrera egin ahal izan dugu. Hala ere, eskasa iruditzen zaigu oraindik eta uste dugu, gutxienez, beste pertsona bat kontratatatu behar dela,

kudeaketa kontrolatzeko eta jarduera aztertzeko behar adina baliabide izateko. Horrez gain, hileko eta eguneko kontabilitate-itxiera bermatu behar da, itxiera bakoitzean periodifikazio eta hornidura guztiak sartuta.

Bestetik, uste dugu sistema informatikoan inbertitzen jarraitu beharra dagoela, Kooperatibaren kudeaketa-arlo guztietako (komertzializazioa, fakturazioa, kontabilitatea, finantzak, erabakiak hartzea, eta abar) informazioa integratzeko eta kontabilitate analitikoaren automatikoki ezartzeko.

Kontabilitate analitikoa

Aurreko ekitaldietako txostenetan, kontabilitate analitikoa ezartzea gomendatzen genuen. Ekonomia- eta finantza-arloak laguntza eskatu zigun beharrezko irizpideak eta planifikazioa diseinatzeko, Kooperatibaren kostu-guneen efizientzia ekonomiko eta finantzarioa hobeto ezagutzeko, emaitzak hobeto kontrolatzeko eta helburuak lortzeko eta gastua kontrolatzeko lan-talde guztien inplikazioa sustatzeko helburuarekin.

Lankidetzaz horri esker, kontuan hartu beharreko kostu-guneak (komertzializazioa, sorkuntza, parte-hartzea...) eta sarrerak eta gastuak egozteko irizpide aplikagarriak definitu dira. Zoritxarrez, diseinatutako kontabilitate analitikoa ezin izan da integratu egungo kudeaketa-sistema informatikoetan.

2020ko aurrekontua kontabilitatea aztertzeko adostutako jarraibideen arabera prestatu zen jada. Ekonomia- eta finantza-arloak hitzeman zuen, 2020an, kontabilitate analitikoaren eskuzko kontrola egingo zuela. Baina, 2020. ekitaldia ohiz kanpokoan izan den arren, ez da asko aurreratu eremu horretan.

Aurrerapauso bikaina izan da, ordea, aginte-taula integrala (enpresa-estrategia eta -kudeaketa garatzeko adierazle garrantzitsuenak) sortzea. Taula oso lagungarria da aurretik zehaztutako helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta zuzendariei haien gaineko erabakiak hartzen laguntzeko.

2020ko itxierako informazio ekonomikoa

Iaz, pandemia zela kasua, jardunbide on bat ezarri zen: Talde Teknikoko eta Errektore Kontseiluko kideek urteko kontuak eta aurrekontua Batzar nagusia prestatzeko espazio batean aurkeztu zituzten. Aurten ere, hala egingo da, maiatzaren 25ean. Jarduteko modu horren alde egiten dugu eta finkatzea nahiko genuke, bazkideekin gardentasun- eta partaidetza-politikak ezartzeko.

2021eko Batzar nagusiari begira bazkideen eskura jarri diren dokumentuen artean, ekonomia- eta finantza-arloak argitaratu duen 2020ko urteko kontuen azalpen-txostena

dugu. Dokumentu horrek ondo betetzen du urteko kontuen interpretazioa errazteko helburua. Txostenak 2020ko emaitza zehatz-mehatz aztertzen du 2019arekin alderatuta.

Ekitaldiko emaitzaren analisia

Ekitaldi honetako zerga aurretiko emaitza 2019koa baino 472.352 € txikiagoa izan da.

AÑO	VARIACIÓN			
	2.020	2.019	€	%
A) OPERACIONES CONTINUADAS				
1. Importe neto cifra de negocios	72.060.811,00	64.847.670,50	7.213.140,50	11,12%
a) Ventas	71.833.425,60	64.677.778,60		
b) Prestaciones de servicios	227.385,40	169.891,90		
4. Aprovisionamientos	-65.171.861,90	-58.824.407,10	-6.347.454,80	10,79%
a) Consumo de mercaderías	-65.171.861,90	-58.824.407,10		
5. Otros ingresos de explotación	792.428,00	828.181,20	-35.753,20	-4,32%
a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente	21.183,40	129.952,40		
b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio	771.244,40	698.228,90		
6. Gastos de personal	-3.233.944,00	-2.441.607,40	-792.336,60	32,45%
a) Sueldos, salarios y asimilados	-2.435.278,40	-1.867.477,90		
b) Cargas sociales	-798.666,10	-574.129,50		
7. Otros gastos de explotación	-3.496.371,20	-3.026.342,10	-470.029,10	15,53%
a) Servicios exteriores	-1.268.439,00	-1.063.861,20		
b) Tributos	-2.028.458,60	-1.947.333,00		
c) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales	-199.473,70	-15.148,00		
8. Amortización del inmovilizado	-69.984,00	-76.293,00	6.309,00	-8,27%
12. Fondo Educación, Formación y Promoción	-55.552,00	-89.182,70	33.630,70	-37,71%
13. Otros resultados	-12.685,40	-6.257,00	-6.428,40	102,74%
A.1) RESULTADO DE explotación (1 + 2 + 3 + 4 + 5 + 6 + 7 + 8 + 9 + 10 + 11 + 12 + 13)	812.839,30	1.211.763,00	-398.923,70	-32,92%
14. Ingresos financieros	229.899,00	218.537,90	11.361,10	5,20%
a) De participaciones en instrumentos de patrimonio	72.010,40	71.480,00		
a 1) En empresas del grupo y asociadas	72.010,40	71.480,00		
b) De valores negociables y otros instrumentos financieros	157.888,60	147.058,00		
b 1) De empresas del grupo y asociadas	157.697,50	146.734,00		
b 2) De terceros	191,1	324		
15. Gastos financieros	-234.339,60	-149.549,40	-84.790,20	56,70%
a) Por deudas con empresas del grupo y asociadas	-213.090,40	-148.730,00		
b) Por deudas con terceros	-21.249,10	-820		
A.2) RESULTADO FINANCIERO (14 + 15 + 16 + 17 + 18)	-4.440,60	68.989,00		
A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1 + A.2)	808.398,80	1.280.751,00	-472.352,20	-36,88%

Hauek izan dira bariazio hori eragin duten partida nagusiak:

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia 7.213.140 € (+% 11,1) handiagoa da. Hornikuntzaren ondoriozko gastua 6.347.455 € (+% 10,8) handiagoa da eta, ondorioz, marjina gordina 855.286 € hazi da.
2. Langileria-gastuak 792.337 € (+% 32,4) handiagoak dira, kontratazio berrien eta soldata-eskalaren berrikuspenaren ondorioz. Berrikuspen hori hitzarmen kolektibo aplikagarriak (ingeniaritza-enpresak eta bulego teknikoak) aurreikusten duenarekin bat dator, eta onartutako aurrekontuan aurreikusitakoa baino txikiagoa da.

Aldi berean, hala ere, hainbat abisu eman behar ditugu:

- a. Ohartarazten dugu nominaren igoerak hazkunde begetatibo inertzial bat eragingo duela.
 - b. Gure iritziz, 2,5eko soldata-urkila (soldata handienaren eta txikienaren arteko proportzioa) murriztaileegia da erantzukizun handiko postuetarako. Halaber, murriztaileegia iruditzen zaigu ere irabazi-asmorik gabeko kooperatibentzat Kooperatiben legeak 144. artikuluan ezartzen duen soldaten goiko muga (% 150). Beharbada, bi arrazoi horiengatik, Kooperatibak oraindik ez du bete gerentzia-kargua. Uste dugu konponbide irudimentsuak aurkitu behar ditugula, indarrean dagoen araudiaren baitan.
 - c. Helburuak betetzen badira, ordainsari aldagarri bat sartzeko aukera aztertzea planteatu genuen.
 - d. Langileria-gastu guztiak ezin zaizkio egotzi komertzializazioari. Lanpostuak dagozkien kostu-gune ezberdinen artean bereizi beharko lirateke. Eta sorkuntza eta parte-hartzea finantzatzeko bideak hobeto argitu beharko lirateke.
3. Ustiapen-gastuak 470.029 € (+% 15,53) handiagoak dira. Besteak beste, berankortasunak gora egin duelako (184.326 €), banku-komisioak hazi direlako (58.482 €), *Infoenergia* zerbitzuagatik (87.899 €) eta garapen-bidean dagoen proiektu baten arrisku potentzialari erantzuteko hornidura bat (100.000 €) egin delako.
4. Finantza-gastuak (84.790 €) hauen ondorio dira: borondatezko kapital sozialerako ekarpenen jaulkipen berritik aurrera, Kooperatibaren zorpetzea handitu da, eta futuroen merkatuan zein merkatu elektrikoan diruzko bermeak gordailutzeagatik kostu berri bat (urteko % 0,50) ezarri da.

Funtsean, 2020. ekitaldiko emaitza 2019koa baino txikiagoa izan da, fakturazioak gora egin badu ere.

EBITDAren gainerako marjina

Iaz, jada, kontu-hartzailatza txostenean azaldu genuen Kooperatibari kaudimena emateko modu bakarra ekitaldiko mozkinak ez banatzea eta erreserba gisa gordetzea dela.

Azken Batzar nagusian, EBITDAren gainerako % 0,5-% 2 bitarteko marjina (irabaziaz interesen, zergen, balio-galeren eta amortizazioen aurretik) ezartzea erabaki zen. Urkilaren beheko muga estuegia iruditzen zaigu eta uste dugu, aurrekontuak ehuneko horiekin egiten badira, edozein gertaera negatiboren ondorioz galerak erregistratzeko arriskua oso handia dela.

Gure ustez, erreserba horiek energia berriztagarriak sortzeko proiektuak finantzatu behar dituzte. Eta energia berriztagarriak sortzeko proiektuen finantzaketa hirugarrenetik zorraren eta Kooperatibaren erreserbetatik eta kapitalek datozen funts propioen artean banatu egin behar da.

Horregatik, ekitaldi bakoitzeko, Kooperatibak, gutxienez, EBITDAren % 3ko emaitza lortzea helburu izatea gomendatzen dugu. Ehunekoa, zergak ezarri ondoren, % 2 edo % 2,25 izango litzateke, hots, erreserbetarako gordetzen dena.

Energia-hornikuntza

Kooperatibak futuroen merkatuan parte hartzen du alde zurretik jakiteko zein preziotan erosi ahalko duen energia. Hornikuntza-beharren % 80 futuroen merkatuaren bidez asetzen dira. Ezagutzen duen erosketa-prezioarekin, Kooperatibak salmenta-prezioa ezartzen du.

Eguneko merkatuan, energiaren prezioa futuroen kontratuetan zehaztutakoa baino txikiagoa bada, Kooperatibak bermeak gordailutu behar ditu. Berme horiek atxikita geldituko dira, kontratua iraungitzean ezarritako prezioa ordaintzen dela bermatzeko. Diru hori ezin da inbertsio produktiboetarako erabili, eta, une honetan, urteko % 0,5eko interesa sortzen du.

2020ko Batzar nagusiak erabaki zuen energia saltzeko tarifak 6 hilero ezarriko zirela. Horrek futuroen kontratuen batez besteko epemuga eta, ondorioz, bermeak murriztea ahalbidetzen du. Era berean, energia tarifa indexatuan saltzeko aukera onartu zuen. Aurreikuspenen arabera, eskaintza hori 2021. urtearen amaieran egingo da. Kasu honetan, hornikuntza eguneko merkatuan egingo da; beraz, futuroen merkatuan erosteko beharra txikiagoa izango da.

Azkenik, energia-hornikuntzan autoprodukzioak eragin ditzakeen hiru ondorio azpimarratu nahi ditugu:

1. Energia instalazioan sortzen bada eta hornidura-puntuan erabiltzen bada, Kooperatibak energia gutxiago erosi behar du.
2. Instalazioek sortzen dituzten soberakinen konpentsazio-kostua ezaguna da, eta horrek Kooperatiba merkatuko oszilazioetatik babesten du.
3. Soberakinak konpentsatzen ez badira, Kooperatibak kWh horiek ez ditu merkatuko prezioan ordaindu behar.

Laburbilduz, autoprodukzio-kontratuak eragin positiboa dute Kooperatiban.

Funtsean, aurreikusten dugu egungo % 80ko estaldura pixkanaka murriztu ahal izango dela, berme-gordailuetarako baliabideen alde.

Finantza-emaitza

2020ko finantza-emaitza aurreko ekitaldikoa baino askoz txikiagoa da, 4.441 euroko emaitza negatiboa baita.

Finantza-gastuak borondatezko kapital sozialaren jaulkipenen, lehentasunezko partaidetzen jaulkipenen eta banku-interesen ondorio dira.

Borondatezko kapital sozialaren jaulkipenetatik datozen funts batzuk ezin izan dira inbertitu hainbat proiektu bertan behera gelditu direlako edo oraindik sarrerarik sortzen ez duten (bai ordea gastuak) eraikitze bideko instalazioetan inbertituta daudelako.

Era berean, 2020an kreditu-erakundeek gastu berriak kobratu dizkigute energiaren eta futuroen merkatuekin lotutako altxortegi-funtsak zaintzeagatik. Zenbat eta diru gutxiago gordailutu kontuetan, segurtasun-funts gisa, eta zenbat eta diru gutxiago inbertitu proiektu berrietan, finantza-kostu txikiagoa.

Finantza-sarrerak hauek osatzen dituzte: maileguengatik enpresa partaidetuei kobratutako interesak, maileguengatik Generation kWh enpresei kobratutako interesak eta sozietateen dibidenduak.

Ezin dugu ahaztu Generation kWh enpresei kobratutako interesak proiektuan inbertitu zuten bazkideen akzio energetikoen eskubideak ordaintzeko erabiltzen direla. Horrenbestez, interes horiek modu bereizian kontabilizatu behar dira, eta ez dira kontuan hartu behar finantza-gastuak koadratzeko.

Dibidenduei dagokienez, enpresa guztiengandik kobratutako dibidendu guztiak gastuak ordaintzeko erabili ahalko dira. Une honetan, enpresa bakar batek, INICIATIVAS ENERGÉTICAS COMBINADAS, SL, ordaintzen ditu dibidenduak. Hori da mailegurik gabe eta zuzenean kapitala inbertituz egin den enpresa bakarra. Horregatik, haren dibidenduengatik kobratutako zenbatekoaren zati bat finantza-gastuak ordaintzeko kontuan har daiteke, eta zenbatekoaren gehiengoa, aldiz, inbertsioa berreskuratzeko. Datu horiekin, finantza-emaiza askoz txikiagoa izan da eta kudeaketak egin beharko lirateke orekatzeko.

Gastuei dagokienez, gaur egun borondatezko kapital sozialaren jaulkipenei aplikatzen zaien interes-tasa txikitu beharko litzateke, merkatuko prezioekin bateratzeko.

Enpresei egindako maileguen ondoriozko sarrerei dagokienez, komenigarria litzateke etorkizuneko instalazioetan inbertituko diren funtsak % 100 borondatezko kapital sozialaren jaulkipenetatik ez etortzea, eta zati bat Kooperatibaren erreserbekin eta kapitalarekin finantzatzea.

Zor-jaulkipenak

Energia sortzeko proiektuak finantzatzeko, Kooperatibak zorraren, lehentasunezko partaidetzen eta borondatezko kapital sozialaren jaulkipenak egin ditu.

Borondatezko kapital sozialaren jaulkipenek ez dute epemugarik eta edozein unetan eska daiteke haiek itzultzea. Bazkide guztiek batera dirua itzultzea eskatzeko arriskua saihesteko,

2019ko Batzar nagusian, Errektore Kontseiluari, ekitaldi bakoitzeko, 1.350.000 eurotik gorako, edo ekitaldiaren hasieran dagoen borondatezko kapital sozialaren % 10etik gorako, itzulketak ez onartzeko eskubidea esleitu zitzaion.

Borondatezko kapital sozialaren jaulkipen berriak deitzekotan, hiru ezaugarri hauek gehitzea proposatzen dugu:

- 1. Bazkide bakoitzak egin dezakeen ekarpenaren zenbatekoa mugatzea.** Bazkide guztiek batera dirua itzultzea eskatzeko arriskua are gehiago saihesteko, bazkide bakoitzak borondatezko kapital sozialera egin ditzakeen ekarpenen zenbateko osoa (adibidez 10.000 euro) mugatzea proposatzen dugu. Muga horretara iritsitakoan, bazkideak ezingo du beste ekarpenik egin. Proposamen honen helburua bazkide parte-hartzaileak ahalik eta gehien dibertsifikatzea da. Izan ere, muga hori dela eta, bazkide gehiagok parte hartu beharko dute jaulkipen berrietan. Parte-hartzea handitzeko, informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin beharko litzateke, egungo bezeroei zuzenduta ere, bazkide gisa alta eman dezaten.
- 2. Harpidetza egiteko epe bat zehaztea.** Parte-hartzea handitzeko, harpidetza egiteko epe bat zehaztu beharko litzateke bazkideen eskaerak jasotzeko. Epea amaitzean, jaulkipena neurriz gain beteko balitz, hainbanaketa aplikatu beharko litzateke. Garrantzitsuagoa da parte-hartzea handitzea jaulkipena azkar ixtea baino.
- 3. Ekarpenen estornoa.** Baliabideak aurreikusitako proiektuetan aplikatu ezin baditu edo proiektuen kostua kalkulaturakoa baino txikiagoa bada, Kooperatibak ekarpenak zati batean itzultzeko (estornoa) ahalmena izan beharko luke. Estorno hori egindako ekarpenen artean hainbanatu beharko litzateke.

Sorkuntza-enpresa partaidetuak

Azken kontu-hartzailetza txostenean komentatu genuen bezala, ezinbestekoa iruditzen zaigu alde biko kontratuak (PPA akordioak) egitea enpresa partaidetuen eta SOM ENERGIA, SCCLren artean, enpresa partaidetuen ondare-oreka bultzatzeko.

Arduradun ekonomikoekin egin ditugun bileretan, jakinarazi digute, 2020. ekitaldian zehar, azterketa teknikoak, juridikoak eta fiskalak egin dituztela kontratu horiek zehazteko eta 2021ean zehar gauzatu nahi dituztela.

Kontratu horiei dagokienez:

- 1.** Merkatuko prezioa alderdiek adostutakoa baino txikiagoa denean, enpresa partaidetuek funts txikiak jasoko dituzte. Horiekin obligazioak betetzeko eta ondare-oreka mantentzeko emaitzak lortuko dituzte. Egoera horretan, SOM ENERGIA, SCCLk gainkostu bat izango du energia-hornikuntzan.
- 2.** Adostutako prezioa baino handiagoa denean, aldiz, enpresek sarrera berberak izango dituzte. Horrela, obligazioak bete eta ondare-oreka mantendu ahal izango dute, eta Kooperatibak hornikuntza-kostua murriztuko du.

Gaur egun, SOM ENERGIA, SCCLk, kontabilitatearen ikuspegitik, enpresa partaidetu guztiekin talde bateratua osatzen duenez gero, enpresa partaidetuekin hornikuntza-formula hori aplikatzeak ez du kontabilitate- edo zerga-ondoriorik izango. Nolanahi ere, uste dugu ezinbestekoa dela, fakturazio bakoitzean, merkatuko prezioaren eta enpresa partaidetu bakoitzarekin egindako aldebiko kontratuak ezarritako prezioaren arteko diferentziak zehaztea, enpresa bakoitzaren bideragarritasuna balioztatzeko.

2020. urteko kontuen azalpen-txostenaren 6. puntuan (Kudeaketa ekonomikoa), adierazten da sozietate partaidetuak finantzatzeko estrategia berri bat diseinatu nahi dela, bi helbururekin:

- 1.** Sozietate horiek mundura zabaltzea: partikularrak, komunitate energetikoak, tokiko erakundeak, eta abar.
- 2.** Kooperatibaren finantzaketaren hain mendekoak ez izatea.

Une honetan, sorkuntza-instalazio berrietan egindako inbertsioek eredu honi jarraitzen diote:

- 1.** Som Energiak % 100 berea den sozietate bat eratzen du.
- 2.** Sozietatearen kapitala egingo den inbertsioaren kapitala baino txikiagoa da.
- 3.** Som Energiako bazkideek ekarpenak egiten dituzte borondatezko kapital sozialera, eta Kooperatibak mailegu bat egiten dio sozietateari instalazio berria eraikitzeko.
- 4.** Sozietateak sarrerak jasotzen ditu sortutako elektrizitatea saltzeagatik eta Kooperatibari mailegua, adostutako interesak barne, pixkanaka itzultzen dio.

Laburbilduz, Kooperatibak banku batek bezala jokutzen du: bazkideen dirua maileguz hartzen du eta sozietateei mailegatzen die.

Estrategia berriak aurreko txostenetan jada proposatzen genuen berrorientazio bat aditzera ematen du:

- 1.** Sozietatea kontuan hartzeko kapital batekin eratzen da, egingo den inbertsioaren % 30 inguru.
- 2.** Kooperatibak kapitalera egiten duen ekarpena funts propioetatik (derrigorrezko kapital soziala eta soberakin kooperatibotik datozen erreserbak) eta bazkideek borondatezko kapital sozialera egindako ekarpenetatik dator.
- 3.** Som Energiak partikularrei, komunitate energetikoei, tokiko erakundeei eta abarrei kapitalean parte hartzeko aukera eskaintzen die, baina gehiengoa duela bermatuta.
- 4.** Gainerako inbertsioa beste batzuek (banka etikoa...) finantzatzen dute.

Gure ustez, eredu berri honek Kooperatibak bere gain hartzen duen arriskua murrizten du. Eta tokiko erresistentziak gainditzeko lagun dezake, eragileak hurbileko instalazioan inplikatzeko dituelako. Azken buruan, instalazio propioekin fakturatutako kWh-en estaldura handitzeko nahitaezkoa den sorkuntza-instalazio berrien eraikuntza bizkortu dezake.

Generation kWh

Gure iritziz, erabaki ona izan da Generation kWh proiekturako finantzaketa berrien komertzializazioa aldi baterako etetea. Proiektuaren funtzionamendua birmoldatu beharko litzateke. Izan ere, Kooperatibari prestigioa ematen dio, baina finantza-ondorio aipagarriak ditu.

Bazkide ez diren bezeroak gonbidatzea

Gaur egungo kontratu-kopuruarekin eta fakturazioarekin, kostu finkoei aurre egiteko beharrezko baliabideak bateratu dira dagoeneko. Ez badugu nahi Kooperatiba energia elektriko berdea merkaturatzen duen beste sozietate bat izatea eta irabazi-asmorik gabeko kontsumo-kooperatiba gisa finkatzea, uste dugu bazkide ez diren bezero berriak onartzeko baldintzen gainean hausnartu behar dugula.

Une honetan, bazkide bakoitzak derrigorrezko kapital kooperatibora egiten dituen ekarpenak altxortegian funts likido bat izateko erabiltzen dira, ordainketen (banatzaileei eta hornitzaileei ordaindutako fakturak eta langileria-gastuak) eta sarreren arteko denbora-desfasea libratzeko.

Bazkide ez diren bezeroek ez dute finantzaketa horretan laguntzen. Oraindaino, egitura-kostuak ordaintzen laguntzeko baliabide on bat izan da. Hortaz, bazkidetzea erakargarriagoa izan dadin, mekanismoak aztertzea proposatzen dugu.

Xavier Cots i Majora

Carles Cuadern Codina

Quim Ruiz Querol

39344018B

37283508W

37726573H





Bartzelona, 2021eko maiatzaren 1a